

POLTSIKO ANTZERKI SORKUNTZA 2012 II. PROIEKTU DEIALDIA OINARRIAK

Donostia Kulturak, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzua eta Euskal Herriko Antzerkizale Elkartearen laguntzarekin, Poltsiko Antzerkiaren alorrean euskarazko sorkuntzak bultzatzeko bigarren proiektu deialdia antolatu du. Hauek dira ezarritako oinarriak eta irizpideak:

1.- XEDEA

Poltsiko Antzerkiaren, eta orokorrean, formatu txikiko antzerkiaren inguruan euskarazko lanen eskaintza urria ikusita, alor horretan euskarazko sorkuntzak bultzatzea da lehen helburu nagusia.

Bestalde, sorkuntzarako diru-laguntza soilaz gain, antzezlan horien ekoizpenean eta hedapenean laguntzea bigarren helburua, eta beraz, aukeratutako proiektuarekin emanaldiak antolatu nahi dira ere.

Hala, trebakuntzaz eta hedapenez haratago, tartean ditugun sorkuntza eta ekoizpen atalak ere jorratu nahi ditugu ekimen honen bitartez, kultur katea bere osotasunean burutuz.

2.- KATEGORIAK

Kategoria bakarra eta orokorra izango da. Mota eta genero guztiak onartuko dira, baita diziplina artekoak ere.

Aurkeztutako proiektuek Poltsiko Antzerki formaturako egokiak izan beharko dute, hau da taberna edota bestelako espazio txikietara egokitze gaitasuna izan beharko dute.

3.- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Banaka zein taldeka aurkeztu ahal izango da.
- Partaideen adina 16 urtetik gorakoa izatea. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.
- Aurkeztutako antzezlanak jatorrizkoak, estreinatu gabeak eta euskaraz izango dira*.

* Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.

- Gidoiak idatzi gabeak izan behar dute.
- Proiektuen euskara maila egokia izan behar da.
- Antzezlan proiektuek ezin izango dute 70 minututik gora iraun eta gutxienez 30 minutukoak izan beharko dute. Arau honen salbuespenak egiaztatu egin beharko dira eta kasu bakoitza banan bana baloratuko da.

4.- DIRU LAGUNTZA

Antolakuntzak gehienez 3.000 euroko dirulaguntza eskainiko dio epaimahaiak aukeratutako proiektu irabazleari (BEZ barne). Kopuru honen erdia hautaketa jakinarazpenarekin batera egingo da; beste erdia lehenengo ikustaldiaren ondoren. Ikustaldiaren ordainketa diru-laguntza honen baitan jasotzen da.

Honez gain, sorkuntza proiektua gauzatzeko, kultur etxeek espazioak lagako dituzte irailean zehar hautatutako obra lantzeko. Lagapenaren baldintzak eta egutegia Donostia Kultura eta hautatuaren artean adostuko dira.

Donostia Kulturak sorkuntza prozesuan zehar jorratutako lanaren laginak eskatu ahal izango ditu, eta proiektuan azaldutako baldintzak betetzen ez direla antzemanaz gero, diru laguntza kentzeko ala erreklamatzeko eskumena izango du.

Hala ere, hautatuko proiektua eta Donostia Kulturaren artean kontratua sinatuko da.

5.- ANTZEZLANAREN IKUSTALDIAK

Sorkuntza lanaren estreinaldia Euskararen Egunaren astean burutuko da, 2012ko azaroaren 24a eta abenduaren 3a bitartean. Estreinaldi hau Donostiako 2 taberna ezberdinetan egingo da.

6.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

- Donostia Kulturako Antzerki eta Dantza unitateko kide bat
- Donostia Kulturako Kultur Ekintzako zerbitzuko kide bi kide
- Euskal Herriko Antzerkizale Elkarteko bi kide
- Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuko kide bat

